

HERNANIKO ANTZIOLA-SAGASTIALDEKO UDAL-BARATZEEN ERABILTZAILERAKO IZATEKO PROZEDURA ARAUTUKO DUEN BALDINTZA-AGIRIA

1.- XEDEA

Antzolan (HI) SG.01 eremuan eta Sagastialden (HI) SG.02 eremuan kokatutako 72 udal partzelen erabilera, gozamina eta aprobetxamendua arautzeko beharrezkoak diren baldintzak ezartzea eta, halaber, baratze horien esleipen-prozedura, baratzetako laborantza-jarduera eta erabiltzaileen erantzukizuna arautzea.

Onuradun suertatzen direnei, baimena emango zaie partzela horiek erabili eta ustiatzeko, beti ere Agiri honetan zein Hernaniko *Udal baratzeen emakida eta erabilerarako Araudi Orokorrean* (GAO 8.zkia, 2013-05-13) zehazturikoa betez eta jarraikiz.

Baratzeen eta haien instalazioen ezaugarriak "Hernaniko Baratze Parkea" proiektuan jasotakoak dira.

Parkeak guztira 30 m²-ko 72 partzela ditu eta bi eremutan banatuta daude:

Antziola (HI) SG.01 eremuan: 26 partzela
Sagastialde (HI) SG.02 eremuan: 46 partzela.

2.- ONURADUN IZATEKO BALDINTZAK

Onuradun izan ahalko dira Hernaniko udalerrian **eskaera aurkezteko epea hasi baino 6 hilabete lehenago erroldatuta dauden pertsonak** baldin eta Hernaniko *Udal baratzeen emakida eta erabilerarako Araudi Orokorrean* zehaztutako gainontzeko baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) Hernaniko Udalarekiko zerga-betebehar eta gainerakoen ordainketa guztiak egunean izatea.
- b) Aisialdirako baratze ekologikoan garatuko diren nekazaritza eta laborantza jarduerak egiteko fisikoki gai izatea.
- c) Beste baratze ekologiko baten erabiltzaile den bizikidetzaren bateko kidea ez izatea.
- d) Eskatzaileak edo bere bizikidetzaren bateko kideren batek ez edukitzea, ez jabetzan, ez gozamen-eskubidean edo alokairuan nekazaritza-jarduerarako egokia den izaera landatarreko lurrik.
- e) Araudi honetan aurreikusitako arauen bat ez betetzeagatik aisialdirako baratze ekologikoen onuradun izanda zehapen bat jaso ez izana.

Adingabeen eskabideek guraso edo tutoreen abala izan beharko dute, eta adinez gorakoak izango du erantzukizuna araudi honen ondorioetarako.

Onuradun den bitartean Hernaniko udalerrian erroldatua jarraitu beharko du.

3.- LAGAPEN EPEA

Lursailaren aprobetxamenduak urtebeterako iraupena izango du, eta gehienez ere beste lau (4) urtez luzatu ahal izango da, esleipenaren hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Luzapenak adostutzat hartuko dira, baldin eta aldeetako edozeinen aurretiko abisurik ez badago hilabete bat lehenago lagapena amaitu aurretik edo luzapena amaitu aurretik.

Bukatzen denean erabiltzaileak baratzea garbi eta hurrengo erabiltzaileak lantzeko moduan utzi beharko du, erabilera epearen azken hilabetean.

Agiri honetan arautzen diren udal baratzeak bertan desagertu edo leku aldatuko balira, emakidako titularrek lehentasunezko eskubidea izango dute beste udal baratzeen emakida prozesuetan.

4.- ESKAERAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA

Zozketan parte hartzeko interesa dutenek nahitaez eskabidea aurkeztu beharko dute, baldintza-agiri honen I. Eranskinean azaltzen den eredia erabilita.

Eskabide-orriak behar bezala beteta aurkeztuko dira Hernaniko Udaleko Herritarren Harrerarako Zerbitzuan (Gudarien plaza, 1) **hogei (20) egun naturaleko epean** deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunetik kontatzen hasita.

5.- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Onuradun izateko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, eskaerarekin batera honako dokumentazioa aurkeztu beharko da nahitaez:

- a) NANaren edo legez ordezkatzeko duen dokumentuaren kopia
- b) 2. oinarrian ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko zinpeko aitortpena (II. Eranskineko ereduaren arabera)

Udalak ofizios egiaztatuko ditu errolda eta benetako egoitza, arau-hausterik batere ez dagoela eta Udalaren zerga-betebehar edo beste mota bateko betebehar guztietan egunean dagoela.

6.- ONARTUTAKOEN BEHIN-BEHINEKO ETA BEHIN BETIKO ZERRENDAK.

Eskaerak aurkezteko epea bukatutakoan eta horiek egiaztatu eta gero, Udalak jende aurrean jarriko du onartutakoan eta baztertutakoan behin-behineko zerrenda eta, hala badagokio, baztertzeko arrazoiak adieraziko ditu. Behin-behineko zerrenda Udaleko iragarki taulan eta Udalaren web orrian argitaratuko da.

Interesdunek 10 egun naturaleko epea izango dute, Udaleko iragarki taulan zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, behin-behineko zerrendari bidez kotzat jotzen dituzten alegazioak aurkezteko.

Alegazioak aurkezteko epea igaro eta jasotako erreklamazioak ebatzita, onartutako en eta baztertutako en behin betiko zerrenda argitaratuko da Udaletxeko iragarki taulan eta Udalaren web orrian.

Behin betiko zerrendetan onartuta egoteak ez du esan nahi zuzenean adjudikatuko zaienik partzela. Partzelen lagapena hurrengo atalean azaldu bezala gauzatuko da.

7.- BARATZEN ESLEIPEN PROZEDURA: ZOKKETA PUBLIKOA

Partzelak zokketa publiko bidez esleituko dira.

Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratzeko iragarkian, zokketaren eguna, ordua eta tokia jakinaraziko du Udalak. Herriko hedabideetan ere jakinaraziko da.

Zokketa Hernaniko Udaleko idazkariaren aurrean egingo da eta sarrera libre izango da zokketa ikusi nahi duten guztientzat.

Bi zokketa egingo dira:

1.- Lehenengo zokketan onartutako eskaeren artean zeintzuk lortzen duten partzela zehaztuko da. Zokketa hau soilik egingo da eskaintzen diren partzela kopurua baino eskaera gehiago badaude.

2.- Bigarren zokketan partzela zehatzen banaketa egingo da.

Aurreko deialdian esleipenduna izandako norbait 1. zokketan esleipendun suertatu bada, aurreko baratze bera esleituko zaio, ordu arteko landaketa berrartzeko aukera izan dezan, beti ere, aurkakorik ez badu adierazten espresuki, eta ondorioz baratze hori bigarren zokketatik kanpo geratuko da.

8.- ESLEIPENDUNEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA

1.- Esleipendunen behin-behineko zerrenda eta itxarote zerrenda argitaratuko dira Udaletxeko iragarki taulan eta Udalaren web orrian.

Zerrenda horietako edozeinetan azaltzen diren pertsonak erreklamazioak aurkeztu ditzakete zerrenda horren kontra 3 egun naturaleko epean, zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

2.- Behin-behineko esleipendunek bete beharreko baldintzak egiaztatzerakoan behin betikoak bihurtuko dira. Kontrako kasuan (hau da, esleipendunak plegu honetan edo indarrean dagoen araudian zehaztutako baldintzak ez baditu betetzen) pertsona horri dagokion baratzea libre geratuko da eta berriro esleituko da, itxarote-zerrendaren hurrenkera jarraituz.

9.- ESLEIPENDUNEN BEHIN-BETIKO ZERRENDA ETA ITXAROTE ZERRENDAREN KUDEAKETA.

1.- Erreklamaziorik gabeko epea pasa ondoren edo bere kasuan hauek ebatzita, Hernaniko Udalak behin betiko zerrenda onartuko du eta baratzeak esleituko dira.

2.- Era berean, behin betiko itxarote-zerrenda eratuko da. Zerrenda hau baratzea edukitzeko baldintzak bete arren zozketan esleipendun suertatu ez direnek osatuko dute.

Itxarote-zerrendak eragina izango du hutsik geratutako baratzeak esleitzeko, alegia, hasieran aukeratutakoren batek uko egin edo galtzen badu esleipendunaren izaera. Kasu horretan baratzea esleituko da lehenengo onuradunari 5 urteko epea betetzeko falta zaion denborarako.

3.- Behin esleipen prozesua itxi eta behin betiko itxarote-zerrenda eratutakoan, eskaera berririk baldin badago, agiri honetako I eranskinaren bitartez eskaera egin daiteke. Ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileak itxarote-zerrendan sartuko dira, zerrenda horretan sartuta daudenen atzetik betiere eta eskabideen ordena kronologikoan.

Eskabide berri horiek Alkate dekretu bidez onartuko dira.

4.- Esleipenaren gehieneko epea amaitutakoan -5 urte- Udalak beste deialdi bat egingo du baratzeak esleitzeko;horretarako baldintza agiri berriak onartuko ditu.

Aurreko denboraldian baratzeak erabili dituzten onuradunek deialdi berri horretan izen ematea edukiko dute.

10.- IZAPIDETZEKO ETA ESLEITZEKO UDAL ORGANO ESKUDUNA

Alkatearen dekretu bidez onartuko ditu Udalak onartu eta baztertu direnen behin-behineko eta behin betiko zerrendak.

Partzelen behin-behineko esleipena eta itxaron zerrenda, alkatearen dekretuz onartuko ditu Udalak.

Partzelen behin betiko esleipena, bai eta horren ostean zozketan esleipendun suertatu ez diren pertsonekin osatutako itxarote-zerrenda ere, alkatearen dekretuz onartuko ditu Udalak.

Hutsik geratzen diren partzelak hornitzeko esleipen berriak alkatearen dekretuz onartuko ditu Udalak.

Itxaron zerrendetan gehitzen doazen eskatzaile berriak alkateak onartuko ditu.

11.- BEHIN BETIKO ESLEIPENAREN ONDORENGO BETEBEHARRAK

- Kanona ordaintzea.
- Fidantza ezartzea.
- Hernaniko Udal baratzeen emakida eta erabilerarako Araudi Orokorrean (GAO 8.zkia, 2013-05-13), zehaztutakoa betetzea.
- Baldintza-agiri honetan zehaztutakoa betetzea.

Hernaniko Udalak, esleitutako baratzeak ikuskatzeko eta esleipendunek ezarrita dituzten betebeharrak eta obligazioak benetan betetzen dituzten egiaztatu ahalko du une oro.

12.- BERMEA, ERABILERA KANONA ETA URAREN TASA

1.- Bermea:

Esleipendunek esleipenaren unean 30 euroko bermea jarri beharko dute Kutxabank-eko ES05 2095 5041 15 1061211446 kontuan izen-abizenak eta NAN adierazita; ordainketaren egiaztatzea Udalean entregatu beharko dute.

Bermea itzuliko da esleipena amaitutakoan, epe berrirako beste baratzeko baten esleipendun suertatu ez bada.

2.- Erabilera Kanona:

1.- Emakidadunak Udalarari urteko kanon bat ordaindu beharko dio, lehenengo urtean 60 €-koa. Zenbateko hau urtero eguneratuko da Euskal Herriko KPIrekin .

2.- Lehenengo ordainketa emakidaren unean egin beharko da, emakidatik urtebeteko operako izango delarik. Autolikidazio bidez ordaindu beharko da.

3.- Luzapen kasuan, hurrengo urteak banku helbideraketa bidez ordainduko dira, udalaren errekerimendua jaso ondoren.

3.- Uraren Tasa:

Baratzetan kontsumitzen den uraren tasa baratzeko kudeatzeko sortu den elkartearen bidez ordainduko da eta tasa hori urtero ordenantza fisikaletan jasotakoa izango da.

13.- ESLEIPENA AMAITZEKO ARRAZOIAK

Hernaniko Udal baratzeko emakida eta erabilera araudi orokorrean (GAO 8.zkia, 2013-05-13) zehaztutako arrazoi orokorrez gain, Hernaniko Udalak, esleipena epemuga baino lehen amaiturik aitortu dezake Udalak edo Udala ordezkatzeko duen agenteak ikusi edo baieztatzen badu, inongo justifikaziorik gabe, baratzeko erabili gabe dagoela hilabete batean

14.- PRESTAKUNTZA IKASTAROAK

Antziola-Sagastialdeko Baratzeko Parkea barazkigintza ekologikoan oinarrituko da. Horretarako, esleipendunak behartuta egongo dira, lursaila eskuratu baino lehen, Udalak eta Ekoguneak antolatutako nekazaritza ekologikoei buruzko prestakuntza ikastaro bat egitera, lursailak era egokian ustiatuko direla bermatzeko.

Ikastaroa egin ezean, partzelaren esleipena galdu eta itxaron zerrendan lehenengo dagoenak ordezkatuko du.

15.- LURRAREN APROBETXAMENDUA

- 1.- Baratzea lantzeko esleipenduna behartuta dago lagatako partzela lantzerantz; nekazari on batek bezala jardun beharko du eta lanabes egokiak erabili beharko ditu; eta baratzeen aprobetxamenduak honako hau bete beharko du:
 - a) Ez da onartuko lurrak, zorua edo azpiko lurra narriatzeko arriskua duten landareak edo barazkiak landatzea.
 - b) Era berean, erabiltzaileak ezingo du espezie exotiko edo inbaditzaileak landatu; ezta legez onartuta ez dagoen bestelako landararik ere.
 - c) Bestalde, ezin dira sasoiak ez diren espezieak landatu; gehienez zortzi hilabeteko epean uzta jasotzeko landareek izan beharko dute, eta ezingo dira landatu espezie zuhaitziarrak, ezta fruta-arbolak ere.
 - d) Ezingo dira instalatu negutegiak, kutxak, iltzatutako elementuak, etxolak, txorimaloak, arranpaloak edo panpinak.
 - e) Debekatuta dago baratze laborantza-hondakinak edo belardiak erretzea, baita aisialdirako baratze ekologikoen eremuaren barnean inolako surik piztea ere.
 - f) Ezin da likidorik isuri besteen baratzeetan, ezta sastraken edo garbiketaren hondakinak bertan edo baratzean utzi ere.
 - g) Ezin da elementurik instalatu baldin eta paisaia narriatzen badute edo dauden instalazioak aldatzen badituzte, izan bidoiak, biltegi osagarriak, txapak, banatzaileak edo antzekoak.
 - h) Ezin da eraikuntzarik egin lursailetan, ezta itzalperik edo zintzilikatze tresnarik edo inguruaren itxura alda dezakeen bestelako elementurik erantsi ere.
 - i) Ezingo dira erabili zepoak, tranpak, sokak, edo perdigoak zein balin eskopetarik, gomazko jaurtigailurik edo bestelako tresna edo tramankulurik, mekaniko zein natural, lurreko sarbidea galarazteko edozein hegazti, animalia edo pertsonari, txoriei sarbidea eragozten dieten sare babesleak salbu.
 - j) Baratzea edo baratzearen ertzak markatzeko, mugatzeko edo ixteko bakarrik Udalak horretarako aukeratu dituen itxiturak erabili daitezke; ezin da lursaila bestelako hesiekin itxi (harri, egur, adreilu, bloke zein bestelako eraikuntzarako elementu mugatzaileekin).
- 2.- Esleipendunak aurreko atalean adierazitako baldintzetako bat betetzen ez badu, Udalak dagokion zehapena jarri ahal izango dio, eta arau hauste larri edo oso larrien kasuan Udalak emakida baliogabetzeko erabakia hartu dezake, kasuan kasuko inguruabarrak kontutan hartuta eta baloratuta.

16.- BARAZKIGINTZA EKOLOGIKOA

Baratzeen erabileraren onuradunek ez dituzte erabiliko lurrari, azaleko urari edo akuiferoei kalte larriak eragin diezaioketen produktu fitosanitarioren edo bestelako ongarririk; atmosferan partikula desira-gaitzak aska ditzaketan produktuak ere ez dira erabiliko, fauna zein floran kalteak eragiteko arriskua badute. Era berean, ezingo dira erabili zorua kutsa dezaketan bestelako garbiketako produktuak.

Debekatuta dago lurrian inolako isuri kutsatzaileak egitea. Baldin eta zoruari kalte larriak eragin diezaiokete. Erremedio naturalak erabiliko dira izurri eta gaixotasunen aurka eta lurra aldizka-aldizka ongarriztatuko da, aldez aurretik deskonposatutako materia organikoa erabiliz (konposta, simaurra, hondakin organikoa, etab.), ongarririk erabili ordez.

Jarduera hau laborantza metodo tradizionalekin lotu nahian, baina ingurumenaz modu zientifikoan arduratzen diren ezagutza eta teknika berriei uko egin gabe, landu beharreko nekazaritza ekologikoa izango da.

Gauzak horrela ulertzeko moduarekin bat, aisialdirako baratze ekologikoen erabileran nekazaritza ekologikoaren arau hauek izango dira:

1) Ongarriei dagokienez:

Debekatuta daude:

- a) Sintesiko ongarri organiko guztiak (Espainiar estatuan saltzen diren guztiak) eta produktu kutsatuekin egindako konposta (lastoak, simaurrak, pestizida eta herbizidekin tratatutako belar eta ongarri organikoak)
- b) Prozedura kimikoen bitartez lortutako ongarri mineral guztiak (nitrogenatuak, fosfatatuak, potasikoak, magnesikoak, kare bizia, etab.)

Onartuta daude:

- a) Zizareen humusetik eratorritako ongarriak, konpostatutako simaurrak (konpostajea fermentazio aerobikoaren prozesutzat ulertuta), ongarri berdeak eta ongi deskonposatutako uzten hondarrak, baita kutsatu gabeko hondakinekin egindako konpostak ere.
- b) Jatorri naturaleko ongarri mineralak (txikitutako fosfato naturalak, silizeen hautsak, kareharri txikituak, dolomitak, etab.)

2) Tratamendu fitosanitarioei dagokionez:

Debekatuta dago:

- a) Intsektizida, fungizida eta akarizida eta sintesi kimikotik eratorritako beste produktu guztien erabilera.

Onartuta daude:

- a) Substantzia natural mineral, begetal edo animalienetan oinarrituta sortutako fungizidak (Bordeleko salda, Borgoñako salda, etab.)
- b) Landareekin egindako produktuak (beratzeak, infusioak, egosketak, gernuak)

3) "Belar txarrei" dagokionez:

Debekatuta dago edozein sintesiko herbizida kimiko erabiltzea.

Onartuta dago belar lehiakorren kontrolerako metodo biologikoak erabiltzea (bigungarria, eskuzko jorraia edo erdi eskuzkoa, zapalda sakoneko laborantza).

4) Hazi eta landareei dagokienez:

Debekatuta dago:

- a) Laborantza kimikotik datozen birlandatzeko barazkien erabilera.
- b) Prestatzeko edo kontserbatzeko sintesiko produktu kimikoekin tratatutako sustrai, erraboil eta tuberkuluen erabilera.
- c) Bildu ondoren produktu kimiko sintesikoekin tratatutako hazien erabilera.
- d) Edozein mota eta klasetako organismoak, genetikoki moldatuak (transgenikoak)

Onartuta dago:

- a) Nekazaritza biologikotik eratorritako barazki, sustrai, erraboil, tuberkulo eta hazien erabilera.
- b) Produktu horien erabilera, ohiko laborantzetatik etorri arren, produktu kimiko sintetikoekin landu ez baldin badituzte.

17.- INGURUMEN HEZKUNTZA

- 1.- Hezkuntza zentroetako umeek edota beste elkarteek aisialdirako baratzeak bisitatu ahal izango dituzte, baratzeotan egiten diren jardueren berri emateko, eta nekazaritza tradizional eta ekologikoaren gaineko balioak bultzatzeko.
- 2.- Alde horretatik, baratzeetako erabiltzaileek, ezinbestean, irekitzeko ordutegiaren barruan, aukera eman beharko diete eskoletako taldeei zein beste talde horiei baratzeetara inguratu eta sartzeko, Udalak Hezkuntza arloko administrazioekin edo beste Herri administrazioekin antolatutako bisiten kasuan.
- 3.- Kasu horietan, erabiltzaileak lagundu beharko die ikastolekin zein taldeekin azaldutako irakasle edo pertsoneri, posible duen neurrian eta baratzeak bisitatu irauten duen bitartean, bisitan etorritako taldeei azal dakien zein diren laborantzen teknikak eta ezaugarriak fase bakoitzean: lurraren prestakuntza, ongarriztatzea, landaketa, ureztatzea, jorraia, izurrien garbiketa, bilketa eta hondakinen kanporaketa.
- 4.- Era berean, erabiltzaileek lurrari eta naturari lotutako balioak transmititu ahal izango dituzte, eurek laborantza metodoei buruz dituzten ezagutzak emanez: erabilitako espezieak, zein ikasleen/taldeen nekazaritza tradizional eta ekologikoarekiko, zehazki, eta ingurumenarekiko, oro har, interesa piztu dezakeen beste edozein datu, belaunaldien arteko erlazioak sustatuz.

18.- ARAUBIDE JURIDIKOA

Baldintza-agiri honetan esplizituki aurreikusi ez diren egoeretarako kontuan hartuko da Hernaniko Udal baratzeen emakida eta erabilerarako Araudi Orokorra (GAO 8.zkia, 2013-05-13), Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen 1372/1986 Errege Dekretua, Administrazio Publikoen Ondare Legea eta kasuari aplikagarri izan dakioken gainontzeko araudia.

I ERANSKINA: HERNANIKO BARATZE PARKEA

BARATZA-ESKABIDEA

ESKATZAILEAREN DATUAK

IZENA	ABIZENAK	SEXUA
NAN	JAIOTZE DATA	
HELBIDEA	P.K	LURRALDEA
TELEFONOA	e-posta	

AURKEZTUTAKO DOKUMENTUAK

- NAN edo legez ordezkutzen duen dokumentuaren kopia
- Zinpeko aitortpena (II. Eranskina)

Hernani, 20..../...../.....

Sinadura

Hernaniko Udalak jakinarazten dizu, "**Pertsona fisikoen datu pertsonalen tratamendu eta zirkulazio libreari dagokionez, 2016/679 (UE) Europar Erreklamatuak eta 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.** arautu bezala, eman dizkiguzun datu pertsonalak erakunde honek dituen datu pertsonalen fitxategi automatizatueta sartuko direla.

Fitxategi horien **helburua** da udal kudeaketak bere eskumenen alorrean dituen zereginak ahalbidetzea.

Zure eskubideez baliatu nahi baduzu -dagozkizun datuak ikusi, aldatu, ezeztatu eta kontra agertu-, hurrengo helbidera zuzendu:

Hernaniko Udala; Gudarien plaza 1, 20120 Hernani, Gipuzkoa. **Erref.** Datuen babesa.

Informazio gehiago <http://www.hernani.eus/eu/datubabestuak>

II. ERANSKINA

ZINPEKO AITORPENA

Nik,
J./And.-k,
..... -(e)an bizi naizenak, PK..... eta
..... zenbakidun NANA etatelefonoa ditudanak, **zinpeko aitorpen** hau aurkezten dut:

- a) Egunean ditudala Hernaniko Udalaren zerga-betebehar eta gainerako ordainketa guztiak.
- b) Ez naizela beste baratze ekologiko baten erabiltzailea den bizikidetze-unitate bateko kidea.
- c) Ez daukadala (ezta nire familia-unitateko kideren batek ere) nekazaritza-jarduerarako egokia den izaera landatarreko lurrik, ez jabetzan, ez gozamen-eskubidean edo alokairuan, Hernaniko udalerrian.
- d) Zigorrik ez daukadala lehenago aisialdirako beste baratze ekologiko baten jabe izan naizelako, Araudian aurreikusitakoa ez betetzeagatik.

Hernani 20.. / /

Sinadura.....